

Beso biur ona du  
 Besagaiñ obea,  
 Bañan dakiyen dana  
 Askotan gordea;  
 Buruz pelotari au  
 Da oso ernea,  
 Ez daki zer dan euskal  
 Jokuan nekea.

Pelota arturikan  
 Gogotuz osoki,  
 Chit bigur botatzen du  
 Atzera gogorki;  
 Joku motza egiten  
 Du oso egoki,  
 Pelotari maisu au  
 Da, Roman Beloki.

### EUSTAKIO BRAU.

Pelotari onen gain  
 Gaur nai det itzegin,  
 Nere irakurleak  
 Ar dezan atsegin,  
 Asko aldiz diyote  
 Plazara otsegin,  
 Ez deitzot ontan iñork  
 Dubenik utsegin.

Jokalari zarra da  
 Gaztea izanik,  
 Ez du des-aditutzen  
 Lagunen esanik;  
 Ez ditu idukitzen  
 Begiyak etzanik,  
 Iñork ez du ukatzen  
 Maisu ona danik.

Onek duben jokua  
Da chit marrajua,  
Zeñaz neurtzen duben  
Ondo arrak jua;  
Gorputz liraiñ duna da  
Bikaiñ ta majua,  
Pelotarako beti  
Izandu tajua.

Atochatik asi zan  
Onen izaera,  
*Tanto kontatzalle zan*  
Bere asiera;  
Chit deitua izan da  
Bilbao aldera,  
*Plaza Euskara eta*  
*Buenos Aires-era.*

Oso gogoz asi det  
Izkribuzko lan au,  
Segituko det griñak  
Utzitzen ez banau,  
Euskaldunen joku on  
Prestuak pozten nau,  
Bizi bedi pelota-  
Jokuarekin Brau.

JUAN IGNACIO URANGA.

---